

Maidier Oleaga

zine zuzendaria

**“Muga asko
gainditu zituen
Elbira Zipitriak,
eta nik ere bai,
haren historia
kontatzeko”**



Idea batzuen atzetik bide luzea egin behar izaten da maiz; eta beste batzuetan, ideiak berak dira zu aurkitzen zaituztenak. Halako zerbait gertatu zitzaion Maider Oleaga zinegileari (1976, Bilbo). Geroztik, sei urte eta zientoka lan-ordu joan dira, baina azkenean amaitu du *Muga deitzen da Pausoa* filma. Hezkuntzan zein politikan aitzindari izan zen Elbira Zipitria ezagutzeko egin duen bidea kontatu du lan horretan.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Lander Arretxea

@larretxea



Zazpi urteren ondoren Mexikotik itzuli zenean, lagun batek botatzen zion galdera: ba omen zuen etxe bat Donostiako Parte Zaharrean, konfiantzazko norbaiti alokatu nahi ziona, eta ea hartuko zuen berak. Etxea ikusi eta berehala eman zion baiezkoa. Bazekien aurrez Elbira Zipitria delako batena izan zela, baina ez zion garrantzirik eman. Zipitria nor izan zen jakin zuen gero, baita etxe hori bera eskola klandestino gisa erabili zutela ere. Ezin izan zion tentazioari eutsi: berak kontatu beharreko historia zuen hor, parez pare. Sei urte eman ditu lan horretan. Bitartean, beste bi proiektutan ere murgildu da: ETBk eskatutako *Iragan gunea Berlin* zuzendu zuen, eta dena du prest Kuartango herrian egindako western bat ardatz izango duen *Kuart Walley* filmari ekiteko.

Zerk ekarri zintuen dokumentalgintzara?

Ni fikzioan hasi nintzen. Ikus-entzunezkoak ikasi nituen Iruñean eta zine zuzendaritza Madrilen. Fikziozko zuzendari gisa izan nintzen hezia, eta gero, Mexikon, egin nituen lan batzuk zuzendari gisa ere. Baina ez nituen lan-tresnak menperatzen: kamerak, post-produkzioa... Zinemara modu artisauegitean hurbiltzeko beharra sentitu nuen. Film labur bat egin nuen Bolivian lan horiek guztiak nire gain hartuta, eta horrek zerbait aldatu zuen nigan. Oraindik badut fikziora itzultzeko gogoia, baina aurrez dokumentalarekin eta errealitatearekin harreman handiagoa nahi nuen izan. Zinemarekin dudak erlazioan sakontzeko bidea izan dira dokumental hauek.

Nire irakasle izan zirenek Elbira Zipitriarekin ikasi zuten, eta gehiago edo gutxiago, eman ziguten haren berri. Baina han edo hemen galdetuz gero, inor gutxi daki nor izan zen.

Egin zuen lan guztia kontuan hartuta, ez da batere ezaguna. Ia zazpi urte dira ikertzen hasi nintzela, eta interneten ez zegoen ia ezer. Liburu bakanen bat

dago, bat hil zenean egin ziotena, eta pedagogiaz ari diren beste batzuk. Baina haren bizitzaz, ez dago ia ezer. Lehenengo bi edo hiru urteetan ikertzen aritu nintzen, eta oso saturatuta bukatu nuen prozesu hori. Bera bizi izan zen garaia eta egin zituen gauza guztiak ulertzeko, asko arakatu behar nuen. Hizkuntza, politika, hezkuntza... Mila alor landu zituen. Horrek eraman nau jende asko ezagutzera: haren lagunak, ikasleak... Neurri handi batean, Elbiraren munduan sentitu naiz.

Fikzioaren eta errealitatearen arteko muga fina dela azpimarratu izan duzu.

Oso gai zabala da. Niretzat beti dago fikzioa, baita dokumental batean ere. Nire pertsonaia dokumentalean sartzearekin batera, fikzio bat eraiki dut hor. Kasu honetan, Elbira Zipitria pertsonaia historikoa da. Hala ere, nik pertsonarengana hurbiltzeko izan ditudan errekurtsioak irudimenezkoak dira: besteen oroitzapenak eta nire harremana jada hilda dagoen pertsona batekin. Hori forman ere nabaritzen da. Ez nuen biografia bat egin nahi: hasieran ikerketa sakona egin arren, gero liberatu egin nintzen horretaz. Bilaketa ez da izan hainbeste historikoa, pertsonala baizik. Nahi nuen jakin nolakoa zen emakume hori eta zergatik gertatu zitzaion gertatu zitzaiona.

Zu zeu ere dokumentalaren parte zara. Dokumentalak egitean ohikoa da bilaketa batean murgiltzen den zinegilearen figura. Eroso sentitu zara paper horretan?

Pelikula honetan nahitaezkoa zen ni agertzea. Orain urte batzuk, lotsagatik edo, zalantza egin nuen. Baina nire buruarekin zintzoa izanda: ezinbestekoa zen. Grabatzen hasi ginenean deserosotasunak ahaztu nituen. Egin behar nuen, eta kito. Hiru astez grabatu genuen nire etxean, bost laguneko taldean. Hor agertzen den Maider hori pertsonaia da. Ni naiz, baina ez naiz ni. Pertsonaia bat da, konflikto bat duena. Eta pelikularen zer-

bitzura jarri dut. Off-ahotsa ere nik neuk jarri dut eta hor sentitu naiz biluziago.

Izenburua bera ere prozesuan aldatu diozu: *Muga deitzen da Pausoa* izena du orain.

Proiektua hasi zenean, *IRA26-2* jarri nion izena. Ira zen Elbiraren ezizena, eta 26-2 da etxearen helbidea. Niretzat etxeak pisu handia du eta horregatik jarri nion izen hori. Gainera, lehen gidioiak 26 kapitulu zituen. Bertsio berriak egin ahala, 26 kapituluena zentzua galdu du, eta zenbaki hori ere ez da pelikulan agertzen. “Muga deitzen da pausoa” esaldia Elbira Zipitriaren lagun batek erabili zuen nirekin hitz egin zuen batean. Pedro Mari Otañoren poema batek ateratako esaldia omen da. Apuntatu nuen asko gustatu zitzaidalako, eta gero muntatzeko garaian, zentzua zuela ikusi nuen. Uste dut Elbirak muga asko gainditu zituela bere bizitzan, eta nik ere bai filma egitean: hasteko, enkoadrea bera; filmean ni agertzea.

Zipitriari buruzko dokumentalarekin ari zinen bitartean egin duzu *Iragan gunea Berlin* filma ere. ETBk eskatuta hurbildu zara Agirre Lehendakariak Berlinen eman zituen garaietara. Nola izan bi lanak uztartzea, bat enkarguzkoa, bestea oso pertsonala?

Oso ondo etorri zitzaidan ETBk jarritako enkarguari heltzea. Saturatu xamar nengoan ordurako Elbirarekin. Urtebete eman nuen *Iragan gunea Berlinen* egiten, eta bost hilabete Berlinen bertan. Uste dut mesede egin diola *Muga deitzen da Pausoa*-ri ere. Pelikulari ze forma eman oso zaila izan da, eta distantzia hori hartuta, argiagotzeko ikusi dut gero.

Pertsonaia historikoak ezagutzeko gaur eguneko pertsonetatik hurbiltzeko joera dago bi filmetan.

Iraganarekiko nire jokabidea eta interesa zein den adierazten du horrek. Egin behar da ikerketa historiko bat ulertzeko testuinguru haiek, baina uste dut iraganera beti orainetik gerturatu behar garela. Elbiraren kasuan bereziki ikerketa izan da orainetik, hemendik. Iragana orainera ekartzeak laguntzen digu gaur egungo gauza asko ulertzen. Gizarteaz, gure identitateaz... Aurrera egiteko ezinbestekoa da. Horregatik saiatzen naiz alde pertsonaletik hurbiltzen pertsonaia historiko horiengana. *Iragan*

» “Iragana orainera ekartzeak laguntzen digu gaur egungo gauza asko ulertzen”

» “Zinema industrialetik kanpoko lanetan ere fokua jartzea komeniko litzateke, baina alde askotatik eragin behar da horretarako”

» “Ohitzen bagara zinema soilik Hollywoodeko ereduarekin eta entretenimenduarekin lotzera, zaila da gero beste funtzio bat duen zinea ikusi eta gozatzea”

gunea Berlinen ere bazegoen ahalegin bat gaur egungo pertsonen bidez Agirre Lehendakaria nolako izan zitekeen irudikatzen. Horretan badute lotura.

Zure lanerako hizkuntza zein izan ohi da? Elbira Zipitriari dagokionean filmak berak eskatu dizu euskaraz egitea?

Madrilen ikasi nuen, eta gero Mexikon eman ditut zazpi urte. Lan asko egin dut gaztelaniaz, eta *Muga deitzen da Pausoa* izan da euskara hutsean egin dudana lehenengoa. Niretzat, euskararekin harremana asko aldatu da Elbirarekin, asko hurbildu nau euskarara. Banekien aurrez ere, baina ez zegoen nire bizitzaren zentroan. Elbiraren munduan sartuta, ulertu nuen, baita nire gorputzak ere, hautu bat dela, eta zuk erabakitzen duzula horrela bizi ala ez.

Dokumentalak muntaian egiten direla esan ohi da. Baina hala bada ere, film batek aurrera egingo duen edo ez finantzazioa bilatzean erabakitzen da askotan, oraindik muntaia oso urrun dagoenean. Eroso zaude egiteko modu horrekin?

Hala dela onartu behar da. Batzuetan

sentitzen duzu gezurretan ari zarela; ideia idazten duzunean badakizulako erabaki asko daudela oraindik hartzeko. Baina dosierra irakurtzen duenak ere badaki hala dela. Ez zait erraza egiten. Hala ere, uste dut ariketa polita dela, behartzen zaituelako pelikula irudikatzeraz. Egia da, baita ere, ideia asko gelditu zaidala kaxoian, eta oraindik ere gertatuko zait. Baina, uste dut sakon sakonean argi izan behar duzula proiektu batean sinesten duzula eta aurrera nahi duzula egin. Konbentziturata ez bazaudete, oso zaila izango da bidea egitea. In-dar hori behar duzu, prozesua oso zaila eta luzea izaten delako. *Muga deitzen da Pausoa*-ren kasuan, nik banekien, finantziarioarekin edo ez, filma egin nahi nuela.

Errementarik eta bereziki *Handiak* arrakasta nabarmena izan dute. Mesede egiten dizue horrek oso bestelako bidea lantzen duzuen zinemagileei ere?

Pozgarria da arrakasta, noski. Baina normalean film ikusgarrienak handiak dira. Zine mota asko daude, eta publikoak ez du ezagutzen lanean ari den jende asko. Gauza asko daude horren atzean. Zinema industrialetik kanpoko lanetan ere fokua jartzea komeniko litzateke, baina alde askotatik eragin behar da horretarako. Hezkuntzan, adibidez, zinemak oso toki txikia du. Ohitzen bagara zinema soilik Hollywoodeko ereduarekin eta entretenimenduarekin lotzera, zaila da gero beste funtzio bat duen zinea ikusi eta gozatzea.

Film bati buruzko film bat egitea da zure hurrengo proiektua: *Kuart Walley*.

Hori ere kasualitatea izan da. Zoriz joan nintzen Kuartango herrira, eta han jakin nuen western bat egin zutela bertan. Pentsatu nuen hor bazegoela pelikula bat. Gero, *Iragan gunea Berlinen*eko ekoizlearen Mario Madueñok deitu zidan esanez Madrilgo ekoizle batek jakin zuela film horren berri, eta nahi zutela zerbait egin. Zuzendari bila ari ziren eta esan nien baietz. Oraindik hasierako fasean gaude, baina helburua da kontatzea nola egin zuten *Algo más que morir* filma zazpi urtean, modu amateurrean eta herritarren laguntzarekin, herri osoa horretarako egokituz... Murgiltze prozesua martxotik aurrera hasiko da eta orduan erabakiko dugu nola kontatu eta irudikatu. Hori izango da erronka. ■